

## Euskaldunon istorioak

1945eko maiatzaren 2an, amerikar zein sobietarrak iristear zeudela, Jose Marik lekualdatze bat baliatu zuen ihes egin ahal izateko. Askatu eta egun batzuetara hegazkin militar batean bidali zuten Parisera

*Etxahun Galparsororen erreportajea Argazkiak: Sabino Arana Fundazioa*

# Jose Maria Agirreren Mathausenera bidea

JOSÉ María Agirre Salaberria Etxebarriko (Bizkaia) Egixarre baserrian jaio zen, 1919ko martxoaren 25ean. Hala ere, urte gutxi batzuk besterik ez zituenean Raimunda eta Doroteo gurasoek Irunera (Gipuzkoa) joatea erabaki zuten, aitak osaba Federiko Etxeparearen aroztegian lan egiteko eskaintza onartu baitzuen. Beraz, oparotasun ekonomikoak bultzaturik, familia Santiago auzora lekualdatu zen, oraindik Bidasoa ibaiaren ertzean eraikitako etxeek marinel kutsua mantentzen duten auzora, mugaren alboan. Hemen hazi zen Jose Mari eta hemen jaioko ziren bere zazpi neba-arrebak: Conchita, Juan Mari, Mercedes, Joxe Manuel, Maritxu, Mari Tere eta Miren.

Esan daiteke Jose Mariren haurtzaroa gorabeherarik gabe igaro zela eskolaren, etxeko beheko solairuan zegoen familiaren aroztegiaren eta Bidasoan nabigatzeko erabiltzen zituen txalupen artean. Unean uneko gertakari politikoek, 1931ko bigarren Errepublikaren aldarrikapenak kasu, etxean ez zuten aparteko gorabeherarik eragin. Familiaren konpromiso politikoa Eusko Langileen Alkartasuna-rekin (ELA) lotuta zegoen, sindikatu horretako kide baitzen Doroteo.

Baina bizimodu baketsua 1936ko uztailaren 18tik aurrera eten zen betiko, Espainiako armadaren zati handi batek bigarren Errepublikak ekarri-tako aurrerapenak iraultzeko matxina bultzatu zuenean. Abuztuaren amaieran borrokak Irún ingurura iritsi ziren eta iraileko lehen egunean herritarra Nazioarteko Zubia zeharkatzen hasi ziren, herriko kaleetan izango ziren balizko borrokak izututa. Doroteo eta Raimundak ere, balak beren etxeko horman dilindalan hasi zirela ikusirik, aldi baterako izango zen irtenbide horren alde egin zuten, frontea etxetik urrundu arte behintzat.

Hala ere, Frantziako lehen ministroaren aginduz Hendaian errefuxiatu zirenei bost eguneko epea eman zitzainen Espainiara itzultzeko edo, bestela, Garona eta Loira arteko

departamentu batera urruntea onartu behar zuten. Beraz, jendarmeek indarrez bereizi zituzten familiako kideak: adin militarrean zeuden bi gizonak, Doroteo eta Jose Mari, tren batean sartu eta Errepublikaren kontrolpean zegoen Iurrealdera bidali zituzten, Kataluniara. Raimunda eta gainerako zazpi seme-alabak, ordea, errefuxiatu multzo batean Poitiersera (Vienne), 470 kilometro iparraldera, burdinbidez eraman zituzten. Agirre-Salaberriatarrak beren borondatearen aurka banatzen zituzten aldi berean, tropa matxinatuak irailaren 4an sartu ziren Irunen.

Bartzelonara iritsitakoan Doroteo eta Jose Marik Errepublikako Herri Armadan izen eman behar izan zuten eta berehala aire defentsarako bateria batera bideratu zituzten, hiriburu tontoretik menderatzen zuen Sant Pere Martir mendira. Hiriburuko egonaldiak txunditura utzi zuen ihes egin zuten. Jose Marik ere muga

metropoli batera iristea suposatzen zuen kontrasteagatik, baita bizitza egokituztaizkion gertaerengatik ere. Esate baterako, kuartel modura erabiltzen zuten finkaren kanpoaldean, guardia egiten ari zen gau batean, "paseatu" hilketen leku izan zelako. Edota 1936ko azaroan Bartzelonako kaleetan Durruti anarkista ezagunari egin zitzaien hileta jendetuan parte hartu zuelako.

Baina handik gutxira hegazkinen aurkako euskaldunen taldea Sant Feliu de Guíxols (Girona) lekualdatu zuten, Kostako Artilleriako 14. bateriako kide izan zitezen. Berez destino lasaia bazen ere, Jose Marinentzat tragikoa izango zen: 1937ko maiatzean aita Doroteoren heriotza gertatu zen, familiari inoiz argitu gabeko egoeran gertatua.

1939ko hasieran, Francoren tropek Katalunia konkistatu zuten eta, ondorioz, milioi erdi pertsonak Frantziara zeharkatu behar izan, Saint-Cyprien izan nintzen, otsaleko hotzetzik babesteko aterperik gabe. Han lagun asko hil ziren hotzagatik edo beste beharrizan batzuengatik".

tu gintuzten, arantza-alanbrezko hesiz inguratutu eta zaintzaileak jarri zizkigutun inguruan. Saint-Cyprien izan nintzen, otsaleko hotzetzik babesteko aterperik gabe. Han lagun asko hil ziren hotzagatik edo beste beharrizan batzuengatik".

Apirilean Gurseko esparrura eraman zuten Jose Mari. Ordurako milaka errefuxiatu haiek buruhauste eta zama baino ez ziren Frantziako Gobernuarentzat. Gainera, denborak aurrera egin ahala mundu mailako gerra berri bat gorputzen ari zela zurdien. Beraz, Frantziako Gobernuak bultzaturik, irtenbide bat topatu zuen Angel Elejalde eta Marcelino Bilbao lagunekin batera: Landetan egurgile gisa jardutea.

Hala, Landetara eramango zituzten tren militarrera igo ziren urrian. Zoritzarrez, helmugara iristean ezusteko galanta izan zuten, Septfondseko esparrura eraman baitzituzten. Armadan izen emateari uko egiten zieten errefuxiatuak bertara bidaltzen zituzten, muturreko baldintzetan pilatuz. Beraz, lekuaren basakeriak bultzatuta, hiru adiskideek armadan izen eman eta handik lehenbailehen alde egitea erabaki zuten.

Hori zela eta, Frantziak Alemania-rekin zuen mugan eraikitzen ari ziren defentsa sistemara bideratu zituzten hiru lagunak, Maginot Lerrora. Berrian 26. Atzerriko Langileen Konpainian izen eman eta milaka errefuxiatu espainiarrekin batera gotortze-




Jose Mari, artileriako miliziano Kataluinian, 1937-1939 bitartean.



Agirre Salaberria familia erbestean, 1945 aldera.

## Euskaldunon istorioak



Agirre Katalunian miliziano lagunekin, 1937-1939 bitartean.



Jose Mari Agirre eta Marcelino Bilbao, Ebensee zelaian. 1975.



Jose Mari Agirre eta Marcelino Bilbao hurrenez hurren, Mauthausen, espanyiar errepublikariei eskainitako monumentuaren aurrean. 1975.



Jose Mari Palmako 'Balear' frontoian.

lanetan aritu ziren sei hilabetez. Bai na 1940ko ekainean naziek *Maginot Lerroa* eraso eta frantziar soldaduek ihesari ekin zioten. Ondorioz, ekainaren 22an, alemaniarren "tximista gerra" geldiezina zela eta, Epinal (Vosges) hiriaren bueltan milaka soldadu harrapatu zituzten, tartean Jose Mari.

Atxilotu ondoren, Jose Mari eta bere lagunak behin-behineko esparruetan espertxeratu zituzten. Egun batzuk geroago, ehun kilometro baino gehiago oinez eginda, Estrasburgora (Bas-Rhin) eraman zituzten. Gatibualdi, Jose Mari eta Marcellinok boluntario gisa eskaini zuten euren burua Alemaniako armadaren intendentzia lanetarako, bizi-kalitate hobea izan-

go zutenaren esperantzaz. Izan ere, Estrasburgon zentralizatzen zuten alemaniarrek Frantzian lapurtzen zutena, hala nola artelanak, altzariak, xanpainak edota edozein elikagai mota.

Jose Mari eta Marcellinoren lanak 1940ko abenduaren 11n amaitu ziren. Egun hartan espanyiar errepublikarrak alboratu egin zituzten preso frantses, belgiar edo britainiarrengandik, eta futbol-zelaian zentralizatu. Ilunabarrean, argibide berriena zain zeudela, SS soldadu talde bat agertu zen kolpera, zakurrez lagundurik: haginkada amorragarriek eta kolpe bortitzek erabat iztu zituzten. Ondoren, tren-geltokira eraman eta nora-

bide ezezaguneko konboi batera igo arazi zituzten.

Beste zortziehun presorekin batera sartu zen Jose Mari Mauthausen. Bertan, uniformearen bularrean "espanyiar" hitzaren laburdura zen "S" bat josi eta izena ordezkatuko zion

**Alemanieraz hitz egiten ikasi izana lagungarri suertatu zitzzion Jose Mari garai latz haietan**

**Jose Marirekin batera Mauthausen sartu ziren presoen hiru laurdenak hil egin zituzten, tartean Elejalde**

4553 zenbakia ipini behar izan zuen. "Mauthausenin inork ez zuen bizirik iraun behar bospasei hilabete baino gehiago. Nekeak jota hiltzea zegoen, edo elurretan eta european orduak emanda. Harrobiaren hondora amildu arazi ez bazintzuten, alanbre-hesi elektrifikatura bultzatu ez bazintzuten, makilakaden ondorioz hil ez bazintzuten; bizirik irautea lortu baze-nuen, hautaketa frogatzean parte hartu behar zenuen: txikienetik handienerako lerroetan jarrita, azterketa fisika egiteko asmoz. Gaixorik zegoenari heriotza-zigorra ezartzen zioten, nahiz eta heriotza-zigorra etengabea izan! Nire lehenengo azterketan masailak estutu nituen eskuekin gorri-gorri egin arte, azal osasuntsua nuela ikustarazteko. Baliteke orduantxe bizia salbatzea horrexegaitik".

Baina Mauthausenin presoaren biziraupena halabehar hutsezko kontua zen. Eta Jose Mari ere hiltzeko zorian egon zen behin baino gehiagotan: "Erisipela gaixotasuna harrapatu nuen esparruan. Orduan, erizaindegira eraman ninduten. Bain leku hori ez zegoen pentsatuta gaixoak zaintzeko, baizik eta haien doktoreen ikasketa-eskola gisa, gurekin frogak egiten zituzten eta. Eta jakin genuen jendea desagerrazteko baliabideetako bat bihotzean gasolina injektatzea zela. Orduan, erizaindegian nengoela, injekcio bat prestatzen hasi ziren eta urkamendira kondenatutako bati soka jartzen diotenean antzerakoa izan zen. Kontua da mediku lanetan ziharduen presoa katalana zela, Pedro Freixa, eta esan zidan: -Agirre, ez kezkatu. Orduan injekzioa eman zidaten. Gero pixa gorri-gorri egin nuen, eta erizaindegibarrazkara eraman ninduten, gorpuak garraiatzen ibili beharrik ez izateko errausket-a-labearen ondoan eraiki zen gelara. Han hildako batekin ohea konpartitzen jarri ninduten, eta harekin egon nintzen egun oso batez. Kiratsa arnastezina zen, denak hilzorian zeudelako. Eta bitartean "ama" hitza hizkuntza mordo batean izendatzentzutu nuen: *mutter, matia, amatxo, hiltzen ari zirenak, oroitzapenei hiltzen baitzieten*". Jose Marirekin batera Mauthausen sartu ziren presoen hiru laurdenak hil egin zituzten, tartean Elejalde laguna.

Infernukizkira irtetea ameskeria zen. Baino alemanieraz hitz egiten ikasi izana lagungarri suertatu zitzion, 1942ko maiatzean esparrutik urrun

### IDAZLEA

ETXAHUN GALPARSORO



Historian lizentziatura eta kultur kudeaketan masterra. Lazkao Beneditarren Fundazioan teknikaria. 'La deportación de los vascos a los campos del Tercer Reich (1940-1945)' txostenaren eta 'Bilbao en Mauthausen: Memorias de supervivencia de un deportado vasco', Editorial Crítica, liburuaren egilea.

eraikuntza-lanak egiten zituen talde batean interpre gisa jarduteko hau-tatu baitzuten: Cesarren komandoan. Jose Marik Vöcklabruck, Ternberg eta Redl-Zipf (Schlier) herriean lan egin zuen 1945 arte. Ber-tako kideek udalbatza, konpainia pri-batu edo Gerra Ministerioarentzat kualifikazio handiko lanak egiten zituzten eta horrek baldintza hobeak izatea zekarren. Zalantzarik gabe, talde horretako kide izatea funtsezkoa izan zen bizirik irauteko.

1945eko maiatzaren 2an, amerikar zein soibetarrak iristear zeudela, Jose Marik lekualdatze bat baliatu zuen ihes egin ahal izateko. Zorionez lau egun baino ez zituen egin ezkutuan. Askatu eta egun batzuetara hegazkin militar batean bidali zuten Pariseria.

Bost urteren ondoren 1945eko ekainean elkartu ahal izan zen berriro ama eta anai arrebekin Châtelleraul-en (Vienne). Askatasunera egokitzapena ez zen batere xamurra izan, baina 1948an Marina neska-lagunarekin ezkondua eta Maria Elisa txikia jaio ondoren, 1953an Balear Uharteetara abiatu zen. Frantsesa eta alemana menderatzen zituzenez, turismoaren sektore hasiberrian lan egiteko aukera probestu zuen. Palman Zaida hotelaren zuzendaria izan zen urte luzez. Bere azken urteak Sarah Bajar bikotekidearekin partekatu zituen, 2009an hil zen arte. ●

**CLICK:sabinoarana.eus**

**ATEAK ZABALIK PUERTAS ABIERTAS**

**PLAU HAIZETARA**

**Erabateko sarbidea** gure eduki dигaletara:  
artikulu historikoak,  
argazkiak,  
agiritegiko dokumentuak,  
biografiak,  
ikus-entzunezkoak...

**Acceso libre** a nuestros contenidos digitales:  
artículos históricos,  
fotografías,  
documentos de archivo,  
biografías,  
audiovisuales...

